

Ordiziako Udala

2018ITGB0005

Ordizian, 2018ko martxoaren 5ean, Udaletxe honetako batzar aretoan bildu zen **TOKIKO GOBERNU BATZORDEA**, Ohiko deialdian, eta honako hauek bertaratu ziren:

BERTARATUAK:

LEHENDAKARIA: Jose Miguel Santamaría Ezeiza

José Ignacio Iturrioz Gotor	EAJ/PNV
Iñaki Dubreuil Churruca	PSE-EE (PSOE)
Jon Ander Caballero Zubelzu	Ordiziako EH Bildu
Miren Alazne Sukia Galparsoro	Ordizia Orain

Adur Ezenarro Agirre jauna ere bertaratu da.

BERTARATU EZ DIREN ZINEGOTZIAK:

IDAZKARIA:


Ana Urkizu Kerejeta

BERTARATUAK ETA EZIN ETORRIAK

EGUNEKO GAIAK

EGUNEKO GAIEN ZERRENDA:

- 1.-2018ko otsailaren 19ko ohiko bilkurako akta onartzea.
- 2.- 6000 €tik gorako fakturen zerrenda.
- 3.- Hainbat txosten eta eskaera:
 - .- 6.000 €tik beherako fakturak.
 - .- 2018ko aurrekontuak
 - .- Zuberoa kaleko aparkalekuen eskualdatzea administrazio-emakidan.
 - .- Plan Orokorra
 - .- Beasain eta Ordiziako udaltzaingoaren arteko lankidetzeta.
 - .- Norabidearen aldaketa Víctor Mendizabal kalean
 - .- Filipineta kalean, 6.zenbakian, orube eta eraikin bat besterentzeko baldintza-agiriak.



Ordiziako Udala

2018ITGB0005

PRESAZKO BIDETIK SARTUTAKO GAIAK:

GALDERAK ETA ESKAERETAN SARTUTAKO GAIAK:

.- Mila Sukiaren eskaera, osoko bilkuretan hartzen diren erabakien eta aurrekontuaren jarraipena egiteko mahai bat sortzeari buruzkoa.


GORABEHERAK

ORDUTEGIA

HASIERA ORDUA: 15:15ean

AMAIERA ORDUA: 17:20ean





Lehendakari jaunak eman dio hasiera saioari, gai-zerrendako lehen puntuari helduta:

1.- 2018ko otsailaren 19ko ohiko bilkurako akta onartzea

Proposamena

“2018ko otsailaren 19an egindako ohiko bilkuraren akta-zirriborroa onartzea”


Sukia andreak esan du akta zuzendu nahi duela eta 3. puntuan (txosten eta hainbat eskaera), bere interbentzioari, zehaztaperen batzuk egin, zehazki, Ordiziako merkatarien elkartearekin egindako bileraren puntuari.

Aitor Velazquez jaunaren bigarren interbentzioaren ostean, alderdi politikoei erabaki bat behingoz hartzeko eskatzen diona, Sukia andreak esan du berak galdetu zuela ia zein neurri motaz ari zen neurriak hartu behar zirela esan zuenean.

Halaber, Sukia andreak galdetu zuen Velazquez jaunaren soldata nork ordaintzen duen. Alkateak erantzuten dio merkatarien elkarteak udaletxearekin hitzarmen bat sinatuta daukala eta merkataritzako teknikariaren soldata elkarteak berak ordaintzen duela, elkarteak baita kontratatzen duena.

Bestalde, esan du Iturrioz jaunaren interbentzioa ez dagoela jasota aukerak galtzen ari zirela esan zuenean; izan ere, Azpeitia baliatu zen Ordiziak jaso behar zuen funts batez. Aktan agerian gera dadin nahi du.

Akta aho batez onartu da, zuzenketak egin eta gero.



Jarraian, Lehendakari jaunak hurrengo puntuaren berri eman du

2.- 6000 €tik gorako fakturen zerrenda.

.- Zerrenda hauen berri ematen da: 2017ko 82. zenbakiduna, 62.362,65 eurokoa eta 2018ko 7. zenbakiduna, 30.851,09 eurokoa.

Dubreuil jaunak Alkate jaunari eskatzen dio 2017. urteari dagokion SENSÓ VIATOR faktura ordaintzeko.

Aldeko erabakia hartu da.




3.- Hainbat txosten eta eskaera.

.- 6000 €tik beherako fakturak.

Zerrenda hauen berri ematen da: 2017ko 81. zenbakiduna, 26.285,43 eurokoa eta 2018ko 6. zenbakiduna, 49.676,45 eurokoa.

Sukia andreak faktura hauei buruzko informazioa eskatzen du:

- KUKO ikastaroko faktura.



Ordiziako Udala

2018ITGB0005

- BASKIBER-en urteko faktura
- Baratzaetako aparkalekua

Alkate jaunak eta Iturrioz jaunak aurkeztutako gaiari erantzuten diete.

Tokiko Gobernu Batzordea jakinaren gainean geratu da.

.....

.- 2018ko aurrekontuak

Sukia andereak jakinarazten du puntu honen inguruan ez daukala ezer esateko.

Ezenarro jaunak esan du bere taldea aurrekontuetan zuzenketak egiten ari dela eta Kontu-hartzaileak 2017. urteko aurrekontuaren eta likidatutakoaren arteko konparaketa bidaliko diela eta horren zain daudela.

.- Alkate jaunak jakinarazten du, BRUESA CONSTRUCCIÓN, S.A.-ri aparkalekuak erosteko osoko bilkuraren onarpenaren ostean, zirriborro edo dokumentu bat idatzi beharko litzatekeela non udaletxeak esleipenak nola egingo dituen jasoko den.

Dokumentu bat prestatuko da.

.- Alkateak gogora ekartzen du, Plan Orokorreko Batzordean, San Bartolomeko auzotarrekin bilera bat egitea adostu zela.

Bilera horretarako deialdia egitea.

Halaber, Plan Orokorraren inguruan egitea aurreikusten diren tailerrei dagokienez, Plangintzako Aholku Batzordeko kideak eta herriko pertsona erreferentzialak deitzea proposatzen da.

Pertsona horiek proposatuko dira.

.- Alkate jaunak Beasaingo eta Ordiziako udaltzaingoek lankidetzarako egingo duten bileraz informatzen du.

.- Alkate jaunak Victor Mendizabal kalean, Arana kalerantz, egingo den norabide aldaketaz informatzen du (mugikortasun Mahaia).


.- Hoteleko lursaila: Alkate jaunak Filipina kalean, 6. zenbakian, dagoen orubearen eta eraikinaren besterentzea egiteko baldintza ekonomiko-administratiboen agiriaren zirriborroaz informatzen du. Bertan, hotel-establezimendu bat eraikitzeke asmoa dago.

Ezenarro jaunak esan du, Plan Berezi baten bitartez, lursailaren bizitegi-erabilera izatetik hirugarren mailako erabilera izatera aldatuko dela bere balioa murriztuz, gutxi gorabehera, 300.000 euroan, enkante publikora ateratzeko.

Uste du garrantzitsua dela moduren batean ezartzea, etorkizunean lursailaren erabilera berriz aldatzen bada bizitegi-erabilera pasatuz, esleipendunak eskualdaketa bere nahitara bakarrik egin ezin izatea.

Halaber, uste du hotelaren erabilerarako ezarritako gutxienezko epea laburra dela, baina gehiago kezkatzen du etorkizunean eskualdatze bat egoten bada, bertan udaletxearen esku-hartzea eta murrizketa egongo dela bermatzeak.

Udal arkitektoak nabarmentzen du gaia 20 urterako bermatuta geratzen dela eta ez dakiela zein puntura arte legala den, etorkizuneko birkalifikatze posible bati begira, lursailaren salmenta-prezioa mugatzea.
<https://munigex.net/r/0/76/AAAA44A28>



Puntu zehatz hauen gainean eztabaidatzen da:


- 1) Tanteo-eskubidea eta atzera eskuratzeko eskubidea: Udalak tanteo-eskubidea gauzatzen ez badu, esleipendunak eskrituraren kopia aurkezteko derrigortasuna izango du, lursailaren eta baldintzen eskualdaketa hirugarren bati egin zaiola behar bezala erregistratuta.
- 2) Lursaila balizko bizitegi-erabilerara aldatuko balitz, momentu horretara atzeratuko litzateke hitzarmen baten izenpetzea, non baloratuko den, jatorrizko esleipendunari saldutako lursailaren balioa (hirugarren mailako erabilerara) eta eskualdatzea gertatzen den momentuaren arteko balio aldaketa (bizitegi-erabilerara). Bertan, Udaletxearen eta esleipendunaren partaidetzaren ehunekoa ezarriko litzateke, besterentzean sortzen den gainbalioaren operazioagatik.
- 3) Hirugarren mailako erabilerarako 20 urteko gutxieneko epea mantentzen da.



Jarraian, Lehendakari jaunak hurrengo puntuaren berri eman du

4.- Galderak eta eskaerak.


Sukia andereak galdetzen du ia Batzorde baten eraketaz pentsatzen joan daitekeen osoko bilkuretan hartzen diren erabakien betetzeari eta aurrekontuaren betetzeari jarraipena egiteko.



Aztergai gehiago ez dagoenez, Lehendakari jaunak bilera amaitutzat eman du, eta honako akta jaso da; hori, nik, behin-behineko Idazkariak egiaztatzen dut.

ALKATEA

BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA



Ordiziako Udala

2018ITGB0005

En Ordizia, siendo el día **5 de marzo de 2018** se reúne en el Salón de Plenos la **JUNTA DE GOBIERNO LOCAL** en Sesión ordinaria con la asistencia de las siguientes personas:

ASISTENTES:

PRESIDENTE: José Miguel Santamaría Ezeiza

José Ignacio Iturrioz Gotor	EAJ/PNV
Iñaki Dubreuil Churruca	PSE-EE (PSOE)
Jon Ander Caballero Zubelzu	Ordiziako EH BILDU
Miren Alazne Sukia Galparsoro	Ordizia Orain

Asiste también el Sr. Adur Ezenarro Agirre.

CONCEJALES AUSENTES:

SECRETARIA:


Ana Urkizu Kerejeta

INCORPORACIONES Y AUSENCIAS

ASUNTOS TRATADOS

ASUNTOS EN EL ORDEN DEL DÍA:

- 1.- Aprobación del acta de la sesión de fecha 19 de febrero de 2018
- 2.- Relación de facturas de importe superior a 6000 €
- 3.- Informes y solicitudes varias:
 - .- facturas de importe inferior a 6.000 euros.
 - .- Presupuestos 2018
 - .- transmisión garajes concesión administrativa Zuberoa kalea.
 - .- Plan General
 - .- Colaboración policías locales Beasain y Ordizia.
 - .- cambio de sentido en calle Víctor Mendizabal
 - .- Pliego de condiciones para la enajenación del solar y edificio en Filipineta Kalea nº 6



Ordiziako Udala

2018ITGB0005

ASUNTOS INCLUIDOS POR VÍA DE URGENCIA:

ASUNTOS INCLUIDOS EN RUEGOS Y PREGUNTAS:

.- Solicitud de Mila Sukia sobre creación de mesa para seguimiento de la ejecución de acuerdos plenarios y presupuesto.


INCIDENCIAS

HORARIO

HORA INICIO: 15:15 horas.

HORA FINAL:17,20 horas.





Abierta la sesión por parte del Sr. Presidente se da cuenta del primer punto del Orden del Día:

1.- Aprobación del acta de la sesión de fecha 19 de febrero de 2018

Propuesta

“Aprobar el borrador del acta de la sesión ordinaria de fecha 19 de febrero de 2018”

Sra. Sukia dice que quiere proceder a la corrección del acta y hacer alguna puntualización en su intervención en el punto nº 3 “Informes y solicitudes varias”, concretamente en el punto referente a la reunión con la asociación de comerciantes de Ordizia.

Tras la segunda intervención del Sr. Aitor Velazquez solicitando a los grupos políticos que adopten una decisión ya, la Sra. Sukia dice que le preguntó a qué tipo de medidas se refería cuando habló de adoptar medidas.

Pregunto así mismo la Sra. Sukia quién abona el sueldo del sr. Velázquez. El Alcalde le responde que la asociación de comerciantes tiene firmado un convenio con el ayuntamiento y que el sueldo del técnico de comercios es abonado por la propia asociación que es quién le contrata.

Dice además que no está recogida la intervención del Sr. Iturrioz cuando dijo que se estaban perdiendo oportunidades y que de hecho un fondo que tenía que haber venido a Ordizia, fue aprovechado por Azpeitia. Quiere que conste en acta.

Tras las pertinentes correcciones se aprueba por unanimidad.



A continuación por parte del Sr. Presidente se da cuenta del siguiente punto

2.- Relación de facturas de importe superior a 6000 €

.- Se da cuenta de la relación nº:82 de 2017 por importe de 62.362,65.-€ y de la relación nº.7 de 2018 por importe de 30.851,09.-€.

Sr. Dubreuil solicita al Sr. Alcalde se proceda al abono de la factura de SENSO VIATOR correspondiente al ejercicio 2017.

Se dictamina favorablemente.



3.- Informes y solicitudes varias.


.- Facturas de importe inferior a 6000 €.

Se da cuenta de los listados nº:81 de 2017 por importe de 26.285,43 y nº.6 de 2018 por importe de 49.676,45.-€.

Sra. Sukia solicita información sobre las siguientes facturas:

- Factura de KUKO ikastaroa.
- Factura anual de BASKIBER

<https://munigex.net/r/0/76/AAAA44A28>



- Parking de Baratzaeta

Sr. Alcalde y Sr. Iturrioz le responden a las cuestiones planteadas.

La Junta de Gobierno queda enterada.

.....

.- Presupuestos 2018

Sra. Sukia señala que respecto a este punto no tiene nada que decir.

Sr. Ezenarro dice que su grupo está trabajando las enmiendas a los presupuestos y que están esperando que el Interventor les pase la comparativa del ejercicio 2107 de lo presupuestado y lo liquidado.

.- El Sr. Alcalde da cuenta de que tras la aprobación plenaria del acuerdo de adquisición de los garajes a BRUESA CONSTRUCCIÓN, S.A. debería procederse a redactarse un borrador o documento donde se recoja cómo proceder con las adjudicaciones a realizar por el ayuntamiento.

Se preparará un documento.

.- El Alcalde recuerda que en la Comisión del Plan general se acordó mantener una reunión con los vecinos de S. Bartolomé.

Convocar dicha reunión.

Así mismo respecto a los talleres que se prevé realizar en torno al Plan General se propone convocar a los miembros del Consejo asesor de Planeamiento y personas de referencia del pueblo.

Se propondrá a esas personas.

.- Sr. Alcalde da cuenta de la reunión que van a mantener las policías locales de Beasain y de Ordizia a efectos de colaboración.

.- Sr. Alcalde informa del cambio de sentido en la Calle Víctor Mendizabal hacia la calle Arana (Mesa de movilidad).


.- Parcela de hotel: Sr. Alcalde da cuenta del borrador del pliego de condiciones económico administrativas para la enajenación del solar y edificio de la calle Filipinas nº 6 en la que se proyecta la construcción de un establecimiento hotelero.

Sr. Ezenarro dice que mediante un Plan Especial se va a cambiar el uso de la parcela pasando de residencial a uso terciario, aminorando el valor de la misma en más menos 300.000 euros, para sacarla a pública subasta.

Considera importante estipular de alguna manera que si a futuro cambia nuevamente el uso de la misma, pasando a residencial, que la misma no pueda ser transmitida a voluntad única del adjudicatario.


Piensa también que el plazo mínimo establecido para el uso de hotel es corto pero le preocupa más el hecho de asegurar que una futura transmisión esté intervenida y limitada por el ayuntamiento.

El arquitecto municipal señala que durante 20 años queda el tema garantizado y que no sabe hasta qué punto es legal limitar el precio de venta de la parcela cara a una posible recalificación a futuro.



Se debate sobre los siguientes puntos concretos:

- 4) Derecho de tanteo y retracto: obligación de presentar por el adjudicatario, en caso de que el ayuntamiento no ejercite el derecho de tanteo, copia de la escritura debidamente registrada de la transmisión de la parcela y condiciones a un tercero.
- 5) Diferir al momento en que se produzca un hipotético cambio de uso de la parcela a residencial, la firma de un convenio donde se valore la diferencia de valor de la misma con uso terciario enajenada al adjudicatario originario y uso residencial en el momento de la transmisión, estableciéndose un porcentaje de participación del ayuntamiento y del adjudicatario que enajena en la plusvalía generada por la operación.
- 6) Se mantiene el plazo mínimo de 20 años para uso terciario.



A continuación por parte del Sr. Presidente se da cuenta del siguiente punto

4.- Ruegos y preguntas.

Sra. Sukia pregunta si se puede ir pensando en crear una comisión para el seguimiento de la ejecución de los acuerdos plenarios adoptados y también sobre la ejecución del Presupuesto.



Y no habiendo más asuntos que tratar, el Sr. Presidente levanta la sesión, de la que se extiende la presente, de todo lo cual, yo el Secretaria accidental, certifico.